

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

MINTZAMEN PROBA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Lehenengo ariketa aldez aurretik prestatu behar duzu.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
MINTZAMEN PROBA	<p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez da ebaluatuko. • Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du (Nor/NANa/nongoa/lana). <p>1. ariketa: Bakarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek. • Gaia, hari buruzko argazkiak, informazio laburra eta galderak edukiko dituzu azalpena bideratzeko. • Denbora: 3 min azalpena egiteko eta 1 min aztertzailearen galderari erantzuteko. • Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio. • 15 puntu. <p>2. ariketa: Elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai baten inguruko fitxa banatuko zaizue. • Adostasun batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaizue. Helburua negoziatzea eta informazioa trukatzeko da. • Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 6 min elkarrizketan aritzeko. • 15 puntu. 	<p>30 min</p> <p>(10 min gaia prestatzeko dira)</p>	30	15

1. ariketa. Eman zure iritzia gai honi buruz

- 10 min dituzu gaiari buruz duzun iritzia antolatzeko eta azterketan esango duzuna prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoitxo bat. Gero, 3 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzerakoan, hauxek hartuko dira kontuan:
 - gaiari heldu diozun,
 - esaten duzuna ulergarria den,
 - euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

NESKA-MUTILAK ESKOLAN BEREIZITA BERRIRO?



Azkenaldian, heziketa segregatuaren aldeko adierazpenak entzun ditugu. Herrialde garatuetan (Ingalaterran, Alemanian, Suedian...) gero eta gehiago omen dira neska-mutilak bereizten dituzten eskolak. Bereizita, emaitza akademiko hobekak lortzen omen dituzte, bai neskek, bai mutilak. Gainera, esaten dute eskola mistoak ez duela lortu generoen arteko berdintasuna; sexuen arteko borrorak ikasgeletan segitzen du eta genero bortizkeriak ere hor jarraitzen du.

-
- Zer iritzi daukazu zuk gai honi buruz?
 - Zer-nolako abantailak/desabantailak ditu, zure ustez, aukera bakoitzak?
 - Neskak eta mutilak banatzen baditugu, atzeraka egiten ari ote gara? Arrazoitu.

1. ariketa. Eman zure iritzia gai honi buruz

- 10 min dituzu gaiari buruz duzun iritzia antolatzeko eta azterketan esango duzuna prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoitxo bat. Gero, 3 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzerakoan, hauxek hartuko dira kontuan:
 - gaiari heldu diozun,
 - esaten duzuna ulergarria den,
 - euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

POLITIKARIEI SUSPENTSOA



POLITIKARIEI JENDEAK EMANDAKO BATEZBESTEKO NOTAK

Antonio Basagoiti	2.79
Aintzane Ezenarro	5.28
Juan José Ibarretxe	5.56
Patxi López	4.41
Javier Madrazo	3.59
Gorka Maneiro	2.82
Unai Ziarreta	3.87
Mariano Rajoy	2.00
José Luis Rodríguez Zapatero	3.83



Politikariak ez dira normalean jendartean oso estimatuak izaten (alderdi politiko jakin baten jarraitzaileen kasua alde batera utzita, jakina). Gizarteak suspentsoa jartzen die behin eta berriz, ez bada tartean karisma handikoren bat (eta kasu horretan “gai” justu bat). Gero eta gehiago dira arazoei aurre egiteko duten gaitasuna zalantzan jartzen dutenak eta beren probetxurako aritzen direla uste dutenak.

- Ideologia alde batera utzita, zer-nolako profila izan beharko luke politikari on batek?
- Gutxieneko prestakuntzarik eskatu beharko al litzaieke zure ustez? Zer motatakoa?
- Beste herrialde batzuetako politikariez zer iritzi duzu?

2. ariketa

Gaiaren inguruko bat-bateko elkarrizketa egingo duzue orain.

- Adostasun batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaizue.
- Helburua: argumentatzea, negoziatzea eta iritzia trukatzea.
- Kontuan hartuko dugu zenbat/nola parte hartzen duzuen.

Materiala eman (bakoitzari bere fitxa).

Zer egin behar duten azaldu:

■ Egitekoa:

ATEZ ATEKO ZABOR BILKETAREN AUZIA

Zaborra birziklatzea komeni dela ez du inork zalantzan jartzen gaur egun. Baina badirudi jende askok ez duela etxean zaborra bereizteko borondaterik. Horregatik, atez ateko zabor bilketa defendatzen dute alderdi batzuek. Beste batzuek, berriz, 5. edukiontzia alderdi egiten dute, zaborra bereizita botatzen duten biztanleak nolabait saritzeko aukera aztertuz.

Fitxan zenbait argazki ikusiko dituzue. **Komentatu eta zeuen iritzia eman, bakoitzak berea. Horren ondoren, zeuen artean eztabaidatu eta iritzia trukatu.**

- 1 min duzue fitxa begiratzeko, eta 6 min inguru elkarren artean elkarrizketa egiteko.

Jardunaren bitartean:

- Hitz egiten utzi eta denbora kontrolatu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu... (komunikazioa eteten bada, desoreka badago, ekoizpena laburregia bada)
- Horretarako, hemen dituzu galdera osagarriak:

Galdera osagarriak

- Zein alde on eta txar ikusten diozu aukera bakoitzari?
- Herritarrei kontsulta egitea komenigarria iruditzen zaizu? Azaldu zure iritzia.
- Jendea kontzientziatzeko zer egin litekeela uste duzu?

ATEZ ATEKO ZABOR BILKETAREN AUZIA

